

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtziona dezan hainbat gauza egin beharko ditugu. Horien artean, merkaturatze estrategia egokia eman beharko diogu eta horregatik, gure makina iragarri egin beharko dugu jendeak horren berri izan dezan. Iragartze prozesua, alde batetik sare sozialen bidez egingo dugu, gure proiektuaren kontu pertsonala sortuz eta bertan iragarri eta bestetik pertsonai ezgunei publizitate-kanpainak egiteko eskatuz. Bestalde, kaleetan publizitatea ezarriko dugu. Honen bitartez, adin guztietako jendeak produktu honen berri izatea baita gure helburua.

Bigarrenik, kalitatea eta fidagarritasuna bermatuko ditugu gure bezeroentzat. Hori lortzeko, gure makinaren funtzionamendua egokia izan behar da eta honen mantentze on bat ziurtatzeko eguneratuta emango dugu. Fidagarritasuna lortu ahal izateko, bezeroekin harreman zuzenak mantendu beharko ditugu, elkarren artean komunikazio on bat mantenduz. Horrela, gure enpresaren irudi ona mantendu ahal izango dugu.

Horrez gain, gure makina aurrerakoa izatea dugunez helburutzat, ingurumenarekiko errespetuzkoa izango da. Horregatik, gure makinaren bitartez bezeroak sartuko dituzten produktu guztiei bigarren bizitza bat emango diegu eta horrekin gutxiago ekoiztea lortuko dugu.

Azkenik, teknologiarekin eta merkatu-joerekin bat egitea ezinbestekoa izango da. Honi esker, erabiltzaileen behar berriei ondo erantzungo diegu, eta gure irudia eguneratuta egotea lortuko dugu.